

ENPRESA PROIEKTU BERRIAK SORTZEKO LAGUNTZAK 2014eko DEIALDIA

EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA , 2014ko uztailaren 30ekoa, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI
NAGUSIA EBAZPENAREN BIDEZ (2014ko ABUZTUAREN 25eko EHAA)

Xedea	Oinarri hauen babesean, diru-laguntza jaso ahal izango dute negozio-idea bat aztertu eta garatzeko, edozein jarduera-esparrutan eta arduraldi eskusiboko erregimenean, 4. artikuluan (Laguntzen Onuradunak) aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten sustatzaileek, betiere EGAZ Txorierriren (Behargintza Txorierri, SL) tokiko laguntza- eta/edo tutoretza-proiektuetan parte hartzen badute. Oinarri hauen babesean egiten diren jarduerak gutxienez 3 hilabete iraungo dute eta urriaren 30ean abiarazi beharko dira.
Laguntzen onuradunak	Oinarri honetan aurreikusitako laguntzen onuradunak izan ahalko dira eskabidea aurkezteko unean eskakizun hauek betetzen dituzten ekintzaileak: <ul style="list-style-type: none"> • EAEn errolatuta egotea eta zinezko egoitza izatea. • Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea. • Bideragarritasun plan bat izatea enpresa edo negozio berri bat abian jartzeko, zeina dagokion erakunde laguntzaileak balioztatu beharko baitu laguntza-fasearen barruan. • EGAZ Txorierriren enpresa-ezarpina aholkatzeko eta laguntzeko prozesu batean egotea. • Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du helbide soziala eta fiskala, eta lantokia ere egon beharko da EAEn.
Pertsona onuradunen beharrak	Laguntza horien onuradunak izateko, hauxe egiteko konpromisoa hartu behar dute sustatzaileek: <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa edo negozioak abian jartzen jardutea bakarrik. • EGAZ Txorierri enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea. • Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea gehienez 3 hilabete epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita. • Beste laguntzarik ez jasotzea xede horretarako • Ekintzaileek ez badute JEZen altarik ematen adierazitako epean, galdu egingo dute diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea. • Honako hauek ez dituzte jasoko deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak: zigor- eta administrazio- arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta dauden pertsona fisikoak eta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean daudenek. Halakoetan aipatu behar dira Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak.
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta Erandioko Udala, EGAZ Txorierriren (Behargintza Txorierri SL) bidez "ENPRESA PROIEKTU BERRIAK SORTZEKO 14 laguntzak" eman ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Guztira 2.000 euroko 5 laguntzak, sustatzaileak 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago baditu eskabidea aurkezten duenean. • Guztira 1.500 euroko 9 laguntzak, sustatzaileak gutxienez 25 urte baditu eskabidea ofiziala aurkezten duenean.
Diru-laguntzak eskatzea	Laguntzen eskaerak, eskatutako dokumentazioarekin batera, oinarri hauek argitaratzen direnetik 2014ko urriaren 27ko 13:30era arte aurkeztu ahal izango dira Dagozkion eskabideak eta agiriak urkez daitezke: <ul style="list-style-type: none"> • EGAZ Txorierriren, (Txorierri Etorbidea, 46- 13 A, Sondika), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era. • Erandioko Behargintzan (Desanexion kalea 4 ,Erandio) astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.